



4 ZINEMA

Itsaspeko zinemaren zikloa hirugarrenez Manuel Lekuonan

Danok Kideko kideek udaleko kultura saileko ordezkariekin eta Nano Cordovilla Donostiako Itsaspeko zinemaldiko zuzendariarekin, Itsaspeko zinemaren nazioarteko zikloa aurkeztu zuten. Hirugarren edizioa da eta otsailaren 3, 10 eta 17an ikusi ahaliko dira filmak Manuel Lekuonan. Lehenengo aldiz herriko ikastetxeetako haurrentzat emanaldi bat egingo da.

5 BIDAIAK

Diaporamak otsaileko asteazkenetan

Ttakuñ K.E.-ek antolatu ohi duen bidaia diaporamen zikloa otsaileko asteazkenetan egingo da. Aurtengoan, Irlanda, Nepal, Patagonia eta Korsika gertutik ezagutzeko parada izango da herrialde hauetan izan diren hainbat herritarrek prestatutako argazki proiektioei esker. Asteazkenetan, 21:30ean Jalgin izango dira proiektioak eta hauek bukatzean, solasaldi-rako tarteak izango dira.



Eraso sexisten aurkako agerraldia

Bihar elkarretaratzea egingo da Okendon 12:30ean eraso gaitzesteko



Ane Labaka eta Irati Perezek irakurri zuten erasoaren aurkako aldarria bertako herriko hainbat emakume eta gizonek lagunduta.

Lasarte-Oriako emakume talde batek agerraldia egin zuen bertan urtariraren 1ean herriko neska batek jasan zuen eraso salatzeke. Helburua gertaeraren berri ematea izan zen eta herriko emakume guztiei adi ibiltzeko mezua zabaltzea. Bihar eraso salatzeke elkarretaratzea deitu dute Okendon 12:30ean.

Herriko emakume batzuen izenean agerraldia egin zen bertan Okendo plazan. Ane Labaka eta Irati Perez herritarrek argi utzi nahi izan zuten hitza hartu arren, Lasarte-Oriako emakume ezberdinen izenean ari zirela.

Agerraldiaren arrazoia "gure herrian urtariraren 1ean jazotako eraso sexista baten berri ematea da". Azaldu zutenaren arabera emakume erasotua etxera bidean zihoan goizeko 8:30ak aldera, parrandatik bueltan. Bere

portalera iristen ari zela atzetik gizonezko bat zuela ohartu zen baina ez zen gehiegi larritu.

"Emakumeak ez du ondo oroitzen jarraian gertatutakoa baina ohartzerako bere portal aurrean zegoen lurrean etzanda bere gainean aurretik ikusitako gizonetako zuela, bere ezpainen aurka zapi moduko bat estutuz. Emakume erasotua zapiak oso usain fuertea zuela jakinarazi digu. Badirudi, beraz, erasotzailea emakumea lokartzen saiatu zela. Zorionez, ordea, zapien

zegoenak bere efektua egin aurretik emakumeak erasotzaileari ostikada bat ematea lortu zuen eta honek ihesari eman zion. Emakumearen ausardia txalotu nahi dugu, eredugarria baita".

Erasotzaileak ez zuen egin nahi zuena egitea lortu "baina ezin diogu zapien zegoenak bere efektua egin izan balu zer gerta zitekeen pentsatzeari utzi".

Agerraldiaren helburua gertatutakoaren berri ematea izan zen, "Lasarte-Oriako emakume guztiak adi ibil daitezen", eraso hau salatu eta gogor gaitzetsi zuten.

Gertatu zena onartezina dela aipatuta azpimarratu nahi izan zuten urtariraren 1ekoa ez zela herrian emakume batek antzeko erasoren bat jasaten zuten lehenengo

aldia. "Prentsurreko hau amorrutik eta haserretik sortua da, emakumeok ere etxerako bidea edozein ordutan lasai egiteko eskubidea dugulako. Ez dugulako beldurraren menpe bizi nahi. Ez dugulako emakumeon aurkako eraso gehiago onartuko eta batez ere, eraso bakar bat ere ez dugulako erantzunik gabe pasatzen utziko".

Berdintasunaren aldarria entzun eta entzun ari garen garaiotan, gizarte errotik iraultzeko beharra azaldu zuten eta emakumea zapaldua eta erasotua izango ez den gizarte eredu batean sinistu eta bide horretan borrokatzeko prest agertu nahi izan zuten.

Eraso salatzeke elkarretaratzea egingo da bihar Okendon 12:30ean.

NTRA. SRA. DE ARANZAZU IKASTETXEA (JESUITINAS)



ATE IREKIEN JARDUNALDIA
JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

URTARRILAK 26, 11:00ETAN

- 0-16 urte hezkuntza: Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / DBH
- Kristau zentroa eta baloreen hezkuntza.
- Itundutako zentroa.
- Eskola eleanitza.
- Haur txoko 07:30etik.
- Eskolaz kanpokoak.
- Jangela.

Matrikulazio epea
Otsailaren 3tik 14ra

ALTO DE ERRONDO 121, 20009 DONOSTIA
Tel.: 943 21 23 07

WEB: <http://www.jesuitinasdonostia.com/>

Neure kabuz



Jexux Artetxe

Eskukotasuna

Azken garaiotan, eskukotasunaren aldeko joera bat hedatu da gure artean. Batik bat, gure eskuko bagarela aldarrika nahirik, Durangotik Iruñera bitarte eskuz eskuko giza-katea egin nahi dutenen ekimena iragarri denez gero. Ekinbideak ireki duen abaguneaz baliatuta, hara eztabaidari lagungarriak izan dakizkion zenbait gogoeta.

Gure esku dagoena egiteak ez digu besterik gabe bidezkoena hautatu dugunik egiaztatzen. Berdin balia daiteke etxea ondu edo hondatzeko. Hona Latxagak ikusi zuena: "bi eskukoak izaki,... batetik etekina eta atsedena dator, bestetik mina eta grina ilunak". Esaterako, euskal herriaren iraungarritasuna (naziotasuna) jarri al daiteke borondate hutsean oinarritzen den ekinaldi baten menpe? Eskuko izatea baino funts handiagoko esamolderik aukeratu beharrean, burujabe izatea hobetsi beharko genuke. Herri bezalako herentzia arduraz zaindu eta onteza behartzen gaitu, aurrenik. Baina, bere buruaren jabe denak badaki, bere eskutik egingadako onorioez ohartuta baitago, bere buruaz ez ezik bere ingurukoez ere baduela erantzukizunik.

Burujabetzaren ariketa, ordea, behetik gora trinkotzen den horietakoa da. Aurrena zoria finkatu, azkenik teiltatu eman. Hurkoa (lehen auzoa, etekona,...) lehenetsi. Gure eskutik, baina behar den arduraz egiteko badugu lan nahikoa etxean, auzoan eta herrian. Bizi dugun garaia larrian, hainbeste jenderen estualdiaren aurrean, gure esku bailegoke auzolanean erantzunak prestatzea. Orobat, bizikidetzarentzat aukera ireki denean, orube etikoa Lasarte-Oria osora zabaltzeko elkarlanean aritza. Horregatik, zail da ulertzea bertan lehen auzoari laguntzeko, dituen beharrian gorrietasun, elkarrekin aritzeko gauza ez garenok nola eskutik hartuko dugun Durangon, Iruñean edo bien bitarteko edozein tokitan.

Zorion agurrak



Jon

Zorionak txapeldun. 7 muxu erraldoiak zure familiaren partetik. Ondo pasa!!



Mikel

Zorionak txapeldun zure bostgarren urtebetetzean familia guztiaren partetik.



Aitor

Aupa Txapeldun! Zorionak zure 7. urtebetetzean. Asko maite zaitugu!!!!



Jose

Zorionak urtebetetze egunean! Familia osaren partez, muxu eta besakada pila!



Karla eta June

Etexko altxorrik preziatuenari, zorionak! Disfrutatu zuen "festa berezian". Mila muxu familia guztiaren partetik. Maite zaituztegu, politik!



Claudia

Zorionak zure 4. urtebetetzean, familia aiton-amon eta guztiaren partetik!



Nerea

Zorionak zure 9. urteurrenean, zure aiton-amon eta gurasoen partetik. Maite zaitugu.



Patxi

Zorionak gure aitona maiteari. Muxu pila bat, Amañur, Ekain, Arantxi eta Raulen partetik.



Paula

Zorionak printzesa!! Oso ondo pasa zure 6. urtebetetzean. Mario eta osaben partetik. Muxu.



Oier

lada 4 urte!! Familiaren partetik... ZORIONAK!!! Maite zaitugu zorion bero-beroak!



Lander

Zure hamalagarren urtebetetzean familia guztiaren partetik zorion bero-beroak!

Azoka txikia

Eskaintza immobiliarioak

- Usurbilgo sarreran pisu handia alokatzen dut. 648 614 769.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Harremanetarako telefonoa: 649 526 766.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. Merkea. 648 614 769

Salerosketak

- Solariu bertikala saltzen dut, lanpara berriekin. Prezio onean eta negoziagarria. 678 582 706 edo 943 370980.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta zaintza lanetarako. 7 urteko esperientzia eta paperak. Orduka lan egingo luke. 617764996
- Mutila eskaintzen da gizon adinduek zaintzeko. 943 365 149.

- Etxeko garbiketarako edo pertsona adinduek zaintzen lan egingo nuke. Astelehenetik ostiralera. Externa modura. Esperientzia eta informeak. 671 265 867.
- Emakumea eskaintzen da pertsona adinduek edo haurrak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Externa, orduka edo interna modura. Harremanetarako, 943 365 149.
- Interna, externa modura edota orduka lan egingo nuke garbiketara edo zaintzan. Paperak eta esperientziarekin. 650 547 771
- Orduka, asteburuetan edota externa moduan lan egingo nuke garbiketara edo zaintzan. 642 818 480 edo 633 047 767
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zaindako nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. 943 404 015 edo 606 661 048 Doris.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edota helduak zaintzeko baita garbiketara lanak egiteko. Orduka lan egingo prest edo egun osoz. 626 88 66 95
- Asteburuetan pertsona helduen zaintzan ariko

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Julene Egizabal Vegas, urtarriaren 25ean.



Heriotzak

- Jose Antonio Etxeberria Furundarena, urtarriaren 26an, 88 urte zituela.
- Maria Calonge Sanz, urtarriaren 25ean, 90 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 31
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

Larunbata, 01
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Igandea, 02
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Astelehena, 03
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

Asteartea, 04
Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521

Asteazkena, 05
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

Osteguna, 06
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

- nintzateke. Paperak eta bost urteko esperientzia. 657 521 345
- Erreferentziak dituen neska lan bila. Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduek zaindako lituzke. Orduka edo interna moduan. 628 272 416.
- Interna, externa edo orduka lan egiteko prest garbiketara edo pertsona adinduen zaintzan. Harremanetarako, 671 763 558
- Erreferentziak dituen emakumea lan bila orduka, interna edo externa zaintza eta garbiketara lanak egiteko. 632 540 759
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Esperientzia du. 610 147 291.

Bestelakoa

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezikuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak. Harremanetarako, 943 376 888 / 646 645 445 (Maria).

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Ezaguirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Armuti,
Asier Ochozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

INGURUMENA

EHBildu hondakinen gaiarekin aurrera egiteko prest

Elkarlanean sistema egokiena aukeratzeko zubiak eraiki nahi ditu



EHBildu koalizioa ordezkariek asteazken arratsaldean egindako agerraldian

Urte bete igaro da “Bosgarren edukiontzia”-ren batzordea osatu zela eta PNV eta PPren bozkekin PSE-EEk batzordearen lehendakartzat hartu zuela. EHBilduk urte honen balorazioa egin eta hondakin bilketa sistema proposena aurkitzeko bere eskua luzatu nahi izan die beste alderdiei.

TXINTXARRI

Bosgarren edukiontzia”-ren batzordearen balantzea egin zuen Lasarte-Oriako EHBilduk asteazkenean.

Batzordearen gelditasuna hautsi eta hiri hondakinen gaiak aurrera egin behar duela adierazi zuten agerraldean.

Batzordea sortu zenetik urte bete igaro eta honetan hondakin sistemarik onartu ez dela azpimarratu zuten koalizioko ordezkariek.

Agerraldian gogoratu zuten, batzordearen lehendakaria den Jesus Zaballosen intentzioa Gipuzkoako beste udalerrietako ezarketa aztertu eta gure udalerrirako sistema egokiena aukeratzeko zen.

2013. urteko aurrekontuetan batzorde honek bosgarren edukiontzia ezarri eta informazio kanpaina egiteko 12.000 euroko partida zeukala ere aditzera eman zuen EHBilduk.

“Gai honen inguruan sorturiko zurrumbilo mediatikoaren indarrak bultzaturik, PSErentzat duela urtebete, guztiz beharrezkoa zen bosgarren edukiontzia ezartzea gure birziklapen tasa baxuak igotzeko helburuarekin. Eta Atez-atekakoa sistema txar bat zela esaten zuen, nahiz eta datuek Hernanin eta Usurbilen, gure inguruko

herrietan, %80ko birziklatze tasak lortu direla esan, eta Madrid eta Katalunia bezalako zenbait autonomia erkidegoetan beraien alderdi kideak ere ezarpenaren alde agertu”.

Elkarlana

Gure herrian hondakinen kudeaketak bizi duen impasse-a desblokeatu asmoz, Udala osatzen duten beste alderdiei elkarlanerako eskaintza egin zien EHBilduk.

“Ez dugu ohituta gauden kexa elkartruketan erori nahi, herritarrak dagoeneko asperturik daudela iruditzen baitzaigu. Akordioetara iristeko unea da eta guztiok bat egiten dugun helburuetan aurrera egiteko elkarrekin ahaleginak bateratuz lan egin behar dugula deritzogu”.

EHBildu koalizioak agerraldian aipatu legez, Lasarte-Oriako herritarren gehiengoak birziklatzearen alde dagoela, eta hau ingurugiroarekiko dugun betebeharrak bat dela irmoki sinesten du.

“Gure ustez hau da garrantzitsuen eta gainera denok batzen gaituena. Guztiok jarri behar dugu gure aldetik, eta instituzioetatik herritarrak egiteko prest dauden ahalegina bideratzeko mekanismo egokiak jartzeko gai izan behar gara”.

EHBilduren iritzi, bilketa sistema batean ainguratzek,

eztabaidaren erdigunea bilakatu, edo bilketa sistemen inguruan bakarrik lan egiteak ez du zentzurik.

“Hondakinen gaia lantzeko era ugari dago, baina garrantzitsuen gure birziklatze tasa Europak markatzen duen helburuarekin bat %60ra iristea da”.

Hondakinen eztabaida

Hondakinen kudeaketak eztabaida handia sortu du gure herrian azken sei urteetan.

2008ko martxoan, PSE-EE gobernuan zela, atez ateko zabor bilketa sistema ezartzea eta esperientzia pilotu bat aurrera eramatea onartu zuen Udalbatzarrean.

Esperientzia honetan atez ateko sistema herriko parte batean probatu eta etorkizunean udalerrira zabaltzea aurreikusten zen.

Nahiz eta PSE-EE bosgarren edukiontzia aldea izan, Ezker Batuaren laguntza behar zuen eta horregatik herritarren artean inkesta bat egin eta sistema non ezarri aztertu zen.

2009. urtean, PSE-EE eta Ezker Batuaren arteko elkarlana hautsi zen, Lasarte-Oriako alderdi sozialistak ez zuelako atez-ateko zabor bilketaren esperientzia martxan jartzeko konpromisua beteko.

Horrela, 2011. urteko urrian, Bildu dagoeneko Gobernuan egonda, aurreko legealdian hartutako erabakia bertan behera utzi zuen Udalbatzarrek.

Honen ordez, alderdi sozialistak bosgarren edukiontzia probatzeko mozioa onartu zen PSE, PP eta EAJren aldeko botoekin. Bildu eta Plataformak aurkako botua eman zuten.

SANTA ESKEA

Santa Ageda bezperako kantuak

Ohituei eusteko asmoz, otsailaren 4ean, Santa Eskean aterako dira hainbat talde Lasarte-Orian.

Erketz eta Erketz-eko lagunak Zumaburu ikastetxetik aterako dira arratsaldeko 18:30ean eta herriko, zein inguruko baserrietan eskea egingo dute.

Hau prestatzeko otsailaren 3an, astelehena, entsegua egingo du taldeak 20:00etan Zumaburu ikastetxeko lokalean.

Zabaleta Auzoko lagunak, berriz, 18:00etan aterako dira auzo eta inguruko baserrietan oles egitera. Ostean, Goiegi jatetxean afalduko dute.

HEZKUNTZA

EPA-HHI-ko matrikula garaia

Lasarte-Oriako EPA-HHI-k Graduata edo Goi mailako sarbide probarako matrikula egiteko epea ireki du.

Graduata ateratzeko ikasketak egin nahi dutenek edo Lanbide Heziketako Goi Mailako sarbide probak prestatu nahi dituztenek gaurtik aurrera egin beharko dute izena ematea.

EPA-HHI-ko arduradunek adierazi dutenez, herritarrak zentroan eskaintzen diren beste ikasgaietan ere matrikula daitezke.

Interesa duten herritarrek www.epalasarte.es web orrialdean ikasgai eta izena emateari buruzko zehaztasun gehiago aurkituko dute.



ELKARTASUNA

Eskola materiala Guatemala

Eskolako materiala jaso eta Guatemala “Fe y Alegría” egitas-morako eman zuen Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako herriko gobernuak kanpoko erakundeak.

6.000 liburu inguru bidaliko dira Guatemala zonalde behartsuenetako batera. Brigitarren laguntza izan du taldeak bilketa hau egiteko, izan ere, bere egoitzan jaso da material guztia. Elkartasun taldeak adierazi duenez, 2013an 5 urte azpikoak ziren 106 haur hil dira desnutrizio kronikoagatik Guatemala zonalde honetan eta maren indarkeria pairatzen duen zonaldea da.

AEK

Kopletan trebatzen

Ane Labaka herriko bertsolaria Munterri-AEK-ko ikasleekin izan zen astelehenean. Santa Ageda bezpera eta eskea aitzaki, koplen inguruan aritu zen euskara ikasleekin. Besteak beste, herriaren arabera egun desberdinetan kopla kantuan ateratzen direla azaldu zuen, batzuk Santa Ageda bezperan, batzuk Eguberrietan, besteak Inauterietan...

Era berean, koplak duen umore puntua azpimarratu eta hau nola eraiki erakutsi zien, silaba kopurua, errimak nola landu eta hainbat doinu ere entzun ahal izan ziren Munterri-AEK euskategian.



Itsaspeko zinema zikloa hirugarrenez

Danok Kidek udalarekin batera antolatutako zikloa astelehenean hasiko da

Asteazkenean Danok Kideko kideek, udaleko kultura saileko ordezkari eta Nano Cordovilla Donostiako Itsaspeko zinemaldiko zuzendariak Itsaspeko zinemaren nazioarteko zikloa aurkeztu zuten. Hirugarren edizioa izango da eta otsailaren 3, 10 eta 17an ikusi ahalko dira filmak Manuel Lekuonan. Aurten lehenengoz herriko ikastetxeetako haurrentzako saio bat egingo da otsailaren 10eko goizean. Honetan 200 haurrek parte hartuko dutela aurreratu zuten.

TXINTXARRI

Boris Nogales eta Xabier Goitia udaleko kultura ordezkariekin batera agerraldia egin zuten Danok Kideko Jesus Mari Egizabal eta Jose Luis Navarrok Itsaspeko zinemaren nazioarteko hirugarren zikloa aurkezteko. Honetan parte hartu zuen ere Nano Cordovilla Donostiako Itsaspeko zinemaldiko zuzendariak.

Hirugarren urtez itsaspeko altxorrek ezagutzeko aukera izango da Manuel Lekuonan. Film labur eta luzeen bitartez itsaso ezberdinak eta hauek bizi diren animaliak ikusiko dira besteak beste. "Urpekaritzan aritzen direnek soilik gozatzen dituzte itsasoak gordetzen dituen paisaia, landare eta animaliez eta ziklo honi esker, aukera hori herritar gutziet zabaltzen zaie".

Lasarte-Oriara ekarri diren film gehienak, Donostiako Itsaspeko azken zinemalditik pasatakoak direla azaldu zuten auzapean.

Nano Cordovillak azpimarratu zuenez "kalitate handikoak dira denak. Hala baieztatu zuten esparru horretan lan egiten duten profesionalen zinemaldian".

Ikastetxeentzat saioa

Boris Nogales kultura zinegotziak eskerrak eman nahi izan zizkien egitasmoaren sustatzaileei eta aurreratu zuten lehenengo aldiz goizeko emanaldi bat egingo dela otsailaren 10ean, "herriko

ikastetxeetako 200 ikasle etorriko dira filmetako bat ikustera".

Nano Cordovillak azpimarratu nahi izan zuen zinema ziklo honek besteak beste "itsaso azpian dagoena ikusteko balio behar du eta denok bertan dagoena zaindu egin behar dugula konturatzeko".

Izan ere, bere ustez kontzientzia falta handia dago gai honen inguruan.

Egitaraua

Lehenengo saioa astelehenean izango da, otsailak 3, eta honetan 16 minutuko iraupena duen Antonio Ballesterosen "Marina del Este" ikusiko da lehenengo eta jarraian, Rafa Herreroren "Isora: Historia de una manada de calderones".

Isora Tenerife ekialdeko kostaldean bizi den kalderoi tropikalen talde bateko matriarka da. Eta film honetan urte batean kalderoi-taldeak egiten duen bizitza kontatzen da, baita inguru horretan bizi diren biztanleena ere.

Otsailaren 10ean, "Koralizko itsasoa" filmak Australiako itsasoetara eramango ditu ikusleak, zehazki koralizko barrera handira.

Honakoa zikloaren baitan euskaraz ikusi ahal izango den film bakarra izango da gainera. Cordovillak azaldu duenez, Donostiako Real Sociedad-en Itsaspeko sailak ahalegin handia egin du hainbat film euskaratzen.

Guztira hiru itzuli dituzte eta horietako bat da herrian



Asteazkeneko agerraldian herritarrei Itsaspeno zinema zikloan parte hartzeko deia egin zuten antolatzaileek.

ikusiko dena. "Euskarara itzulitako film hauek duten harreara ikusiko dugu eta arrakastaren arabera gehiago itzuli daitezkeen aztertuko dugu".

Honen ostean, "The ocean Brothers" eta "La ley del Hambre". Lehenengoak esaterako film laburren saillean, sari nagusia eskuratu zuen azken Donostiako zinemaldian. Esan behar da hiru lanek, 17 eta 25 minutu arteko iraupena dutela.

Otsailaren 17an berriz azkeneko emanaldia egingo da eta honetan Domenico Drago italiarraren "Los versos del capitán" ikusi ahal izango da. Lan honek diaporama saillean eskuratu zuen lehenengo saria eta "maiuslana da. Nerudaren poemak, musika eta irudi liluragarriak uztartzen ditu".

Ondoren, Mexikoko itsasotetan grabatutako "Baja", Monica Sagreraren "Corazón de Piedra" eta "Mar de un bosque encantado" ikusiko dira. Azken hau itsaspeko argazkigintzan Munduko txapelduna izan den Jorge Candan-en filma da.

Galiziako itsaspea erakus-



Asteleheneko bi lanen irudiak, "Isora" eta "Marina del Este".

ten du lanean "hau ikustea gure itsaspea ezagutzea bezalada".

Danok Kide elkartearen kideek agerraldian bereziki herritarrek animatu nahi izan zituzten saioetan parte hartze- ra. "Filmak zoragarriak dira, mundu mailan ezagunak".

Aurreko bi edizioetan zikloak izandako ikusle kopurua ona izan arren, handitzea dute erronka Danok Kidekoek.

Saio guztiak 19:30ean izango dira Manuel Lekuonan eta denak doan direla azpimarratu zuten.

SANTA TERESA IKASTETXEA
0-18 URTE BITARTEKO HEZIKETA

Ezagutu gure ikastetxea!

Metodologia berriak

Activas, creativas, dinámicas e innovadoras:

- ENTUSIASMAT (MATEMÁTICAS)
- INTELIGENCIAS MÚLTIPLES
- MONDRAGÓN LINGUA (INGLÉS)
- APRENDIZAJE COOPERATIVO

Kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu

fundación escuela teresiana

kristau eskola

Pº Manuel Lardizabal, 25 - 20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tlf: 943 211 764 • www.santateresaikastetxea.com
E-mail: secretaria@donostia.teresiareskola.com

Bidaiarien hitzordua

Otsaileko asteazkenetan 21:30ean izango dira Jalgin bidaietako diaporamak

Ttakunek antolatzen duen bidai diaporamen zikloa otsailean zehar egingo da. Aurtengoan, Irlanda, Nepal, Patagonia eta Korsika gertutik ezagutzeko parada izango da herrialde hauetan izan diren hainbat herritarrek prestatutako argazki proiektioei esker. Guztiak 21:30ean izango dira Jalgin otsailaren 5, 12, 19 eta 26an.

TXINTXARRI

Asteazkenean hasiko dira Ttakun Kultur Elkartek Jalgin antolatutako diaporama saioak. Urteroko hitzorduari jarraiki, hainbat herritarrek munduan zehar izandako esperientziak azalduko dituzte irudien laguntzarekin.

Azaroan egin ohi zen bidaiaren topaketa otsailera aldatzea erabaki du elkarteak, horrela urte berriko oporraldiak antolatzen lagungarri izan daitezke saioak.

Aurten lau herrialdek izango dute presentzia otsaileko asteazkenetan antolatutako emanaldietan.

Irlandan hasita

Lehenengo emanaldia Xabier Erauskin herritarrek eskainiko du.

“Kerry Way, Irlandako lurretan barrena” da bere saioari emandako izena eta horrela Irlandako zonalde honetatik iazko abuztuan

egindako mendi ibilaldiak azalduko ditu besteak beste.

Irlandatik, Nepalera egingo da salto. Otsailaren 12an Ostadar mendi saileko kide batzuek herrialde honetatik egindako bidaia azalduko dute.

La hilabeteko egonaldia egin zuten 2012. urtean eta mendiaz gozatzeko aukera izateaz gain, hainbat herri eta kultura ezagutzeko ahalegina ere egin zuten. Tartean, txirrindaz egindako ibilbidea ere izango dute hizpide.

Otsailaren 19an berriz, mendia guztiz utzi gabe, Jexux Presarekin Patagonia ezagutzeko aukera izango da.

Eta azkenik, otsailaren 26an, Alex Tetuan-en eskutik Korsika izango da hizpide. Herritarrek urrian lagunekin batera irlan egindako egonaldian, eskalada turismoarekin uztartu zituzten.

Solasaldia eta ezagutza

Saio guztiak 21:30ean izango dira Jalgin. Batz bestea, 40 minutuko irudi bidezko aur-



Himalaia mendi garaien artean, tenpluak eta herrixkak bisitatu zituzten Ostadar mendi sailekoek.

kezpena prestatu dute parte-hartzaileek eta hauen ondoren, ikusleek nahi beste galdera edo zalantza plazaratu ahal izango dituzte ikusi eta entzundakoaren inguruan.

Helburua solasaldia egitea da denen artean gau giro bikainaz gozatzeko. Tarte horretan izango da zer jana antolatzaileen esku.

Saioak doakoak dira eta partaide zein antolatzaileek hauetan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrek.


Bide batez, aukera paregabea da munduko txoko, kultura, paisaia... ezberdinak ezagutzeko etxetik ia mugitu gabe.



Irlandako paisaia berdeetan barrena ibili zen Xabier Erauskin.



Jexux Presa Patagonian glaziarrez gozatzeko aukera izan zuen.



Herritarrek Korsikako mendi eta eskalada saioak turismoarekin uztartu zituzten irudia Punta di Corti-n.



**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**



**Matrikula
otsailaren
3tik 14ra**



• D.B.H.
• BATXILERRA

**Zure
aukera**



www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277



LABURRAK..

ERRUGBIA..

Amaia Curiel borroka eta sanbon Euskadiko txapeldun

Amaguadalupeko taldean dagoen Amaia Curiel herri-tarrak lehengo larunbatean Gasteizen izan zen Euskadiko borroka eta sanbon txapeldun parte hartu zuen.

Curiel 63 kilo azpiko mailan lehiatu zen senior mailan eta borroka eta sanbon lehiaketetan garaile izan zen.

Gomez bigarren Idiazabalgo krosetan

Igandean, Idiazabalgo herri krosa burutu zen. 600 korrikalari izan ziren bertan eta horien artean, lasarteorriatar bat izan zen podiumean, Raul Gomez Margallo bigarren izan baitzen.

Eguraldia lagun, korrikalariak ez zuten arazorik izan lasterketako 10 kilometroak egiteko. Gainera, aurtengo krosa berezia izan zen, Ampo empresaren 50. urteurrena ospatzeko, korrikalariak enpresa barrutik pasa zirelako.

Azkenean, Beñat Arnaiz arrasatearra nagusitu zen eta bigundu batzuetara, Raul Gomezek igaro zuen helmuga.

Senior mailako Euskal Liga partida bihar

Arratsalde osoan errugbia izango da nagusi. Lehenik infantilen partida dago

Bihar arratsaldean, Zarautz-Eibar Euskal Ligako errugbi partidaz gozatzeko aukera izango da Michelin kirol gunean. Errugbi jaialdiari hasiera emateko, Beltzak Ostadar Jalai eskolako eskolarteko infantil taldeak Hernaniren aurka partida jokatu du.

TXINTXARRI

Errugbi jardunaldi berezia izango da bihar Kirol gunean. Zarautz taldeko II. mailako taldeak Euskal Ligako partida jokatu baitu bertan, 17:15etatik aurrera. Baina partida hau baino lehen, 16:15ean, Beltzak Ostadar Jalai-Hernani eskolarteko infantil mailako partida jokatu du.

Beltzak Ostadar taldeak Zarautz Errugbi taldearekin duen hitzarmenari esker, maila honetako partidaz gozatu ahal da Lasarte-Orian. Gainera, talde honetan Lasarte-Oriako Beltzak taldean ibilitako sei jokalarik daude.

Aurkaria Eibar izango da eta lehia interesgarria izango da, asteburu honetan 0-5 irabazi baitzuen Eibarrek Oho-rezko B mailako partidaren.

Beltzak Ostadar taldeko kideek herri-tarrak gonbidatu nahi dituzte kirol gunea hurbildu eta Zarauzko taldea eta bertan jolasten ari diren herri-tarrak animatzera.

Hernanik garaitu

Bestalde, Kadete mailako taldeak, lehengo larunbatean Hernaniren aurka galdu zuen.

Beltzak taldeko lagunek aipatu digutenez, nahiz eta euria eta lokatza izan, partida ederra izan zen. "Jokoan nagusi izan zen Hernani, baina gure mutilak mele eta aurrekaldeko jokoan ederki ibili ziren".

Hernanik 9. minutuan lortu zuen Beltzak Ostadar Gure etxearren marra lehenik gaintzea. Ordura arte, gazteek ongi moztu zituzten hernaniarren ahaleginak. Baina



Beltzak Ostadar Gure Etxea taldeko gazteak Hernaniren aurkako partidaren. BELTZAK OSTADAR

aurrelariaren kalitatea defentsa baino hobeagoa zen eta atse-denalduan 0-26 zegoen markagailuan.

Bigarren zatian, Asier Albiteren eskutik Hernaniren marra gaintu zuten. Azken emaitza 5-33 izan zen.

Beste mailak ere lehiatzen

Eskolako txikiak ere partidak eta topaketa izan zituzten.

Michelin kirol gunean eskolen topaketa izan zen. Gasteizko Gaztedi, Iruñeko La Unica, Ordizia eta Irun taldeko eskolako gaztetxoak izan ziren herrian. Plakajeak,

entseguak, paseak, meleak... denetarik izan zen jokatu zituzten partidetan.

Gasteizen, aldiz, infantil mailako taldeek Gaztedi taldearen aurka jokatu zuten. Infantil federatuak ligako liderarena aurka galdu zuten, eta eskolartekoek haien partida irabazi zuten.

Epailea

Beltzak Ostadar eskolako kideek jakitea eman dutenez, Oier Arroyo gazteak lehenengoz egin zituen epaile lanak igandeko topaketan. "Eskolarteko atera den lehen epailea da".

KIROL AGENDA..

FUTBOLA

Larunbata 01

Michelin, 09:45ean

Ostadar B-Hernani
I. kadetea, kopa

Michelin, 11:15ean

Ostadar-Orioko
Jubenilen Ohorezko maila

Michelin, 13:00etan

Ostadar-Real Sociedad
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Michelin, 14:45ean

Ostadar-Zarautz
I. infantil

Alustiza, Segura, 16:00etan

Segura-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa

Fanderia, Errenteria, 16:30ean

Touring-Ostadar
Erregional Ohorezko maila

Fanderia, Errenteria, 18:45ean

Touring-Ostadar
I. kadetea, kopa

Igandea 02

Michelin, 09:45ean

Texas Lasartearra-Intxurru
I. Jubenila, kopa

Berio, Donostia, 10:30ean

Ekintza-Ostadar
Infantil Txikia, partaidetza

Michelin, 11:30ean

Ostadar-Bergara
I. Jubenila, igoera

Ondartza, Hondarribi, 12:00etan

Hondarribi-Ostadar
Emakumeen Liga, kopa

Martutene, Donostia, 13:30ean

Amara Berri- Ostadar B
I. infantil



ARETO-FUTBOLA

Ostirala 31

HERRIKO TXAPELKETA

19:45ean, Viña del Mar-Izkiña
20:45ean, Ilargi-Aritz

Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leioak-Zurt Taberna
Gipuzkoako Liga

Larunbata 01

HERRIKO TXAPELKETA

09:15ean, Balerdi-Indaux

10:15ean, Arkupe-Urdaneta H.K.

11:15ean, Txindoki-El Punto

12:15ean, Izarra-Buenetxea

Igandea 02

Aritzatalde kiroldegia, Zarautz,
12:00etan

Kandela jabetxea Zarautz-Aldaz
H.K. Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 01

Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 18:00etan

Bera Bera-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua

PILOTA

Ostirala 31

Ernio, Bidegoian, 19:30ean

Aurrera Saiaz-Intza
Eskuz binaka, II. kadetea. Udaberri txapelketa.

Larunbata 01

Ametza trinketa, Irura, 14:00etan

Intza-Oiarpe I
Eskuz binaka, jubenila. Trinket txapelketa.

Igandea 02

Kirol gune pilotalekua, 11:00etan

Intza-Murumendi
Eskuz binaka, I. seniorra. Udaberri txapelketa.

ATLETISMOA

Larunbata 01

Tolosa, 11:00etan

LOKEko Maider Rekondo eta Oihana
Igarrikiz Gipuzkoako txapelketako disko
jaurtiketa proban parte hartuko dute.

Igandea 02

Amurrio, Araba, 11:30ean

Hainbat herri-tarrak Euskadiko kros

labur txapelketa den II. Amurrioko
krosan izango dira.

JUDO

Igandea 02

Pasai Donibane, 10:00etan

LOKE judokak Gipuzkoako junior
mailako txapelketan lehiatuko dira.

Pasai Donibane, 11:00etan

LOKE judokak infantil mailako
Gipuzkoako taldekako txapelketan
izango dira.

GIMNASTIKA

Igandea 02

Hernani, 11:15ean

LOKEko eskolarteko A eta B
mailako gimnastek erakusketak
eskainiko dute Hernaniko
taldearekin batera.

IGERIKETA

Larunbata 01

Bergara, 10:00etan eta 17:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil junior eta
absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako
Neguko VI. Sarian lehiatuko dira.

Zarautz, 10:00etan eta 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko master
igerilariak Zarautzeko IV. Open
Sarian parte hartuko dute.

Larunbata 01 eta igandea 02

Madrid

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu
Euskal Selektzioarekin Erkideko
arteko txapelketan izango da.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 01

Antonio Elortza belodromo, 09:45ean

Buruntzaip txirrindularitza
eskolako gazteek pistako
Gipuzkoako txapelketako lehen
jardunaldia dute.

Atsokabar parkea, 11:00etan

Buruntzaip txirrindularitza
eskolako infantil eta alebinek saioa
dute.

ERRUGBIA

Larunbata 01

Michelin, 16:15ean

Beltzak Ostadar Jalai-Hernani
Eskolarteko Infantilak

Michelin, 17:15ean

Babyauto Zarautz-Eibar
Euskal Liga, senior maila

Igandea 02

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai eskolako
alebinek eta benjaminen
entrenamendua dute.

Agenda

Ostirala 31, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Toxina fisiko eta mentalak askatzen

Itzatu taldearen eskutik, "Sauna Deluxe" antzerki lanaz gozatzeko aukera izango da. Erreterriako antzerki taldeak lagun talde baten solasaldiak aurkeztu ditu. Saunan elkartzek, toxina fisiko nahiz mentalak askatzeko balio du. Umorez hainbat gai jorratuko dituzte. Udalak herriko taldeekin antolatutako antzerki amateurren barruko ekimena da. Sarrera, 5 euro.

aurkeztuko du. Talde gonbidatua ere izango da, Zaragozako Phobos Preacher. Sarrera aurretik 6 euro; leihatilan, 8 euro.

Urpeko zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 03, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren lehen saioa izango da.

Astelehena 10, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren saioa izango da.

Astelehena 17, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren azken saioa izango da.

BAI Topaketa

VILLA MIRENTXUN

Osteguna 06, 19:00etan

BAI plataformako I. Topaketen barruan, Patxi Meabek "La salud democrática de la convivencia" hitzaldia eskainiko du. Gaztelaniaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 02, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Ernest eta Celestine" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro. Euskaraz.



Igandea 02, 19:30ean

Helduentzako zinea, "La gran familia española" komedia ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 31, 21:30ean

Discipulos de Dionisos taldearen pornopunka eta Autistic youth talde amerikararen punkaz gozatzeko aukera izango da. Sarrera 5 euro. Ostean, punk rock saioa eskainiko du dj Naturistik.



Larunbata 01, 20:30ean

Geoff Farina amerikarrak rock eta folk doinuak ekarriko ditu. Sarrera, 9 euro. Ostean, La Fabrica de Colores-eko Dj Iban-ek indie eta electro doinuez betetako saioa eskainiko du.

Igandea 02, 20:30ean

Little Pepe malagarra etorriko da reggae doinuak eskaintzera. PingaBwoys taldearen dancehall-a entzun ahaliko da ere. Sarrera, 8 euro.

ABEND KAFE ANTZOKIA

Ostirala 31, 23:00etan

Urrietako Flattened Frogs Massacre taldeak "Aurrekuak" bere diska berria

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Otsailaren 10a arte

Paco Altuna herritarrek Lasarte-Oriako hainbat eraikin zaharretako maketak erakusgai jarri ditu.

Hernani

Jaia

ERDIGUNEA

Larunbata 01, 21:00etatik aurrera.

Kaldereroen konpartsa antzerki Herriko kaleetatik barrena.

Herritarren txokoa

Inauterietako konpartsa entseguak

Euskal Inauterietako konpartsak gogorarazten du, martxoaren 2an dantza egiteko otsailean zehar entseguak izango direla.

Asteartean, hau da, otsailak 4, 11, 18 eta 25ean izango dira saioak Zumaburu-Sasoeta ikastetxe Sasoetako gimnasioan, 20:00etatik 21:30era.

Marraski eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marraski eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiralean dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatuta

dago. Astelehenero, Danok Kide elkarte lokallean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua guttuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean dituzten saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxe gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gazteok ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Hemeroteka

Duela 1096 ale

Jubilazioari buruzko erreportajea idatzi zuen TXINTXARRI aldizkariak 1996 urteko lehen zenbakian.

Michelin enpresak 1983an aurre jubilazioak egiten hasi zen eta urtez urte, adina jaisten joan zen. 1987 urtera arte, 60 urterekin jubilatze aukera ematen zieten langileei. Orduan, aurrejubilazioak lantegietan gertatzen ari ziren birmoldaketan ondorio gisa ulertzen ziren.

Aurrejubilazioa nola gauzatzen den eta jasotzen den diru kopuruari buruz ere hitz egiten zen erreportajearen.

1993 eta 1995 urte artean, aurrejubilazioko datuak ere eskaintzen dira. Aurrejubilatuaren gizonen kopurua handiagoa zen emakumeena baino. Baina langileen ehuneko handia gizonekoa dela ere ohartarazten da.

Honetaz gain, Michelin enpresako lau langilerekin solasaldia izan zuen aldizkariak.

Hauek aldaketa handia izan daitekeela adierazten dute. hala ere, eduki bizi direla eta orain lagunekin ateratzeko edo guttuko dituzten gauzak egiteko denbora gehiago dutela ere azpimarratzen dute. Ez zuten aurrejubilazioa zahartzaroaren aurre pauso bezala ikusten eta jubilatuta eta gero antolatze denbora behar dela ere ohartarazten dute.

Izan ere, jubilatuta aurreko kezka ere aurkitzen ditugu erreportajearen, "Zer egingo dut orain? Zertan emango dut denbora? Gai izango ote naiz bizimodu berriari aurre egiteko?". Jubilatuta ostean, depresioa jasaten dutenak ere aipatzen dira. Baina erreportajearen jubilatuta gehienek haien bizitza era batera edo bestera betetzen dutela ondorioztatzen zen.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu,
geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak
elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
Ingelesa: atzerriera begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria,
informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako:
gertuko jarraipena eta aholkulariak

Liburutegi eta mediateka zerbitzua
Eskola ordutik kanpoko jarduerak



Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak
Jangela zerbitzua
Garraio zerbitzua



Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

<http://www.youtube.com/watch?v=IVpZKS66q-I>

BILERA EGUNA

Euskaraz : Urtarrilaren 29an, 17:30ean Zumaburuko egoitzan

Gaztelera: Urtarrilaren 30ean, 17:30ean, Zumaburuko egoitzan

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274



Lasarte-Orian,
geure herrian!

